



Munduko Rugby Txapelketa

GALES

- Rayer
- Evans
- Hall
- Gibbs
- Emir
- Ring
- Jones
- Webster
- Davies
- Lewis
- Moseley
- Arnold
- Delaney
- Jenkins
- Griffiths

16

7

ARGENTINA

- Del Castillo
- Teran
- Laborda
- Garcia Simon
- Cuesta Silva
- Arbizu
- Camardon
- Santamaria
- Carreras
- Garreton
- Llanes
- Sporleder
- Molina
- Le Fort
- Mendez

Anotazioak:
Gales (9 + 8). Entseiu bat: Arnold (67'), 4 zigor kolpe: Ring (9', 21', 37') eta Rayer (73')

Argentina (0 + 7). Entseiu bat: Garcia Simon (75'). Zigor kolpe bat: Del Castillo (65')

Arbitroa: Rene Hourquet (Frantzia)

Zelaia: Arms Park (Cardiff)

Galesek sailkatzeko aukera du Argentina menperatu ondoren

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Ez dakigu Galesekoei etxean jokatzeak mesede egingo dien ala ez, baina argi dago nola edo hala sailkatzea lortu behar dutela. Ez dugu gauza berririk esango azkenaldi honetan burua jaso ezinik dabiltzala esaten badugu. Hala ere, susperraldia noiz-bait iritsiko zaienaren ustetan gaude eta agian, hemendik aurrera izan daiteke goratze hori, Argentinari irabazi ondoren.

Argentinarek beren eskuetan izan zuten garaipena, baina Garreton eta Yañezen burugogorkeriagatik gehien bat, ez zuten jokoan erakutsitako nagusitasuna aprobetxatzen jakin. Ez zen horretan geratu ordea, Pumasen zoritxarra edo joko kaskarra. Hagararako ostikadak ere oso txarrak izan ziren eta guztira sei zigor kolpe huts egin zituzten.

Amerikarrak nagusi izan ziren bigarren zatian, galesak behin baino

gehiagoetan estuasunetan jarri. Hala ere, hauek gehienetan baino hobeto asmatu zuten defentsan, oso gogor defendatuz. Hainbestetan defendatu behar izan zuten, ezen zigor kolpe ugari egitera behartuak izan bait ziren. Galesekoek boladako joko-koa egin zuten erasoan.

Erabakiorrak izango dira bestalde, larunbateko Gales-Australia eta igandeko Argentina-Samoa partiduak. Hautetan, final laurdenetako txartela egongo da jokoan. Galesek orain arte erakutsitakoaren arabera, ez du Wallabyesak menperatzeko aukera handirik. Hala ere, gero eta hobeto jokatzen ari dira britainiarrak eta ezustekoren bat emateko gai ere izan daitezke. Samoak bere multzoko bigarren postua eskuratzeko aukera polita izango du Argentinaren aurka. Orain arte nahiko ondo ibili dira eta Argentinak egiten dituen hutsak kontutan hartuz, bi puntuak lortzeko aukera izan dezake.

Canadak hurrengo kanporaketa jokatzeke txartela lortu du

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Errumaniarrak markagailuari buelta emateko zorian egon baziren ere, bigarren zatiaren bukaeran Canadakeri emaitza zion ordura arte lortutako emaitzari eta final laurdenetarako sailkatzea lortu zuen. Ez ziren batere azkarrak izan errumaniarrak, lehen zatian oso baldar eta motel jokatu bait zuten.

Atsedendian, markagailuak 3-3ko emaitza agertzen zuen, bi taldeek egindako jokoaren berdintasuna azalduz. Bigarren zatiaren hasieran, Errumaniak eraso egitea erabaki zuen, baina punturik egiterik ez zuten lortu. Amerikarren gorakada iritsi zen ondoren, bi entseiu eginenez uztartze estatikoetan eta arerioen entseiu lerrotik gertu. Zigor kolpe bat eta transformaketa banari esker 16-3 aurreratu ziren.

Hortik aurrera, Errumaniarren bizkorraldi bikaina izan zuten, esku-eraketa erabaki zutenean. Erasoek berehala eman zuten emaitza, bi entseiu lortu bait zituzten 63. eta 80. minutuetan. Hori izan zen azkena,



Cojocariu errumaniarra.

gehiagorako betarik ez bait zen egon. Datorren igandean jokatuko da D multzoko azken neurketa orain arte sailkatu diren bi taldeen artean, Frantzia eta Canada hain zuzen ere. Ikusgarria gerta daiteke partidua, sailkatuta egoteak lasaitasuna emango bait die. Horren ondorioz, ezohizkoak diren jokaldiak egiteko abagadua ederra izango dute.

Sei taldek lortu dute hurrengo kanporaketa jokatzeke txartela

Faboritoek ez dute orain arteko partiduak irabazteko arazorik izan

New Zealand, Eskozia, Irlanda, Australia, Frantzia eta Canadako selekzioek Munduko Rugby Txapelketako final laurdenetarako txartela eskuratu dute bigarren partidua jokatu ondoren. Ingalterra eta Italiak A multzoan eta Gales eta Samoak C multzoan bigarren postua lortzeko borrokatu beharko dute azken partiduan.


DONOSTIA

New Zealandek final laurdenetarako sailkatzea lortu du jokatutako bi partiduak irabazi ondoren. All Blacksek ez dute espero bezain joko ona erakutsi, baina arazo gehiegi gabe irabazi diete Ingalterra eta Estatu Batuetako taldeei. Ingalterra eta Italiak azken partiduan borrokatu beharko dute bigarren postua lortu ahal izateko. Teorian Ingalterrak ez du bigarren postuan sailkatzeko arazo handirik izan behar.

B multzoan, Eskozia eta Irlandak erraz lortu dute hurrengo kanporaketarako sailkapena, Japonia eta Zimbabwerek kontra. Erresuma Batuko bi taldeak oso indartsu agertu dira eta elkarren kontra jokatuko dute, multzoko aurreneko postua eskuratu nahian.

AUSTRALIARI JOKO SENDOA Australiak C multzoko lehen postua eskuratu du jadanik, Argentina eta Samoako selekzioak menperatu ondoren. Gales eta Samoa dira bigarren postua eskuratzeko aukeran. Galesek Samoaren aurka galdu eta orain Australiako taldea menperatu beharko du aurrera jarraitu nahi badu. Samoak errazago edukiko du, Argentinaren aurka.

D multzoan, Frantzia eta Canada izango dira hurrengo kanporaketara pasako diren taldeak. Oilarrek ondo jokatu dute Errumania eta Fidjiaren aurka eta sasoi onean daudela erakutsi dute. Canadak txapelketa honetako ezustekorik handiena eman du.



Australiarrek joko sendoa erakutsi dute, iragarpenak betez.

A Multzoa

New Zealand	18-12	Ingalterra
Italia	30-9	EEBB
New Zealand	46-6	EEBB
Ingalterra	36-6	Italia

C Multzoa

Australia	32-19	Argentina
Samoa	16-13	Gales
Australia	9-3	Samoa
Gales	16-7	Argentina

Sailkapena:

Taldea	J	I	B	G	P
New Zealand	2	2	0	0	4
Ingalterra	2	1	0	1	2
Italia	2	1	0	1	2
EEBB	2	0	0	2	0

Sailkapena:

Taldea	J	I	B	G	P
Australia	2	2	0	0	4
Samoa	2	1	0	1	2
Gales	2	1	0	1	2
Argentina	2	0	0	2	0

B Multzoa

Irlanda	55-11	Zimbabwe
Eskozia	47-9	Japonia
Irlanda	32-16	Japonia
Eskozia	51-16	Zimbabwe

D Multzoa

Frantzia	30-3	Errumania
Canada	13-3	Fidji
Frantzia	33-9	Fidji
Canada	19-11	Errumania

Sailkapena:

Taldea	J	I	B	G	P
Eskozia	2	2	0	0	4
Irlanda	2	2	0	0	4
Japonia	2	0	0	2	0
Zimbabwe	2	0	0	2	0

Sailkapena:

Taldea	J	I	B	G	P
Frantzia	2	2	0	0	4
Canada	2	2	0	0	4
Fidji	2	0	0	2	0
Errumania	2	0	0	2	0

Ingalterra-EEBB gaurko partidua

DONOSTIA

Gaur partidu bakarra jokatuko da Munduko Rugby Txapelketan, Ingalterra eta Estatu Batuen artekoa, alegia. Ingalterrak final laurdenetarako sailkatzeke aukera du, aurreko partiduan Italiari irabazi ondoren. Britainiarrek partidua irabaziz gero, ziurtaturik izango dute A multzoko bigarren postua eta beraz, hurrengo kanporaketara pasatzeko txartela.

Estatu Batuetako taldea txapelketako ahulenarikoa da dudarik

14.50 TF1
Ingalterra-EE.BB
(Zuzenean)

23.00 TF1
«Le Club» saioa

TB GAUR

gabe eta ez dirudi Ingalterra bezalako selekzio sendoarekin aurrean aukera handirik izango duenik. Hala ere, bi puntuak eskuratzeko ahalegin guztiak egingo dituzte amerikarrek.

Ingalterrak garaipena lortzen ez badu ere, sailkatzeko aukera izan dezake, Italiak New Zealandek aurka jokatuko bait du igandean. Italiak ez du All Blacks gaintzeko inongo aukerarik izango, orain arte ez bait du beste munduko mailarik erakutsi. Beraz, Ingalterra da final laurdenetara pasatzeko faborito nagusia, New Zealandeko selekzio indartsuarekin batera. Britainiarrek beren zaletuen laguntza izango dute, partidua Londreseko Twickenham zelaietan jokatuko bait da.